

ARABA

TURISMO IRISGARRIRAKO GIDA

#arabairisgarriada

EUSKADI
BASQUE COUNTRY



Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava

*Araba da etronka
El reto es Álava*



Argitaratzailea

Enplegua, Merkataritza eta
Turismoa Sustatzeko eta
Foru Administrazio Saila
Arabako Foru Aldundia

Diseinu grafikoa

Zados

Argazkiak

Quintas Fotógrafos

Inprimatze lanak

Arabako Foru Aldundia

ARABA

**TURISMO IRISGARRIRAKO
GIDA**

KAIKO

Euskaraz agurtzeko era formala.
Erdi-gaztelaniazko erdi-euskarazko “¿qué hay txo?” esapidearen laburdura.

TURISMO IRISGARRIRAKO GIDA



1. SARRERA
1. or.



**2. INFORMAZIO
ERABILGARRIA**
5. or.



3. LEKUAREN PLANOA
9. or.



4. IBILALDIK HISTORIATIK
13. or.



**5. ARDOAREN
KULTURA**
21. or.



**6. EZEZAGUN HANDIAK
EZAGUTUZ**
35. or.



**7. GURE NATURA
ZURE ESKU**
43. or.



8. GASTEIZ
51. or.



**9. BALIABIDEEN LABURPENA
ZURE ESKU**
65. or.



**10. ZURE BIDAIARI
BURUZKO
DROITZAPENAK**
73. or.



ONGI ETORRI |

Norbait heziera onez, pozez eta alaitasunez hartzeko erabilitako agurra.




01

SARRERA

ARABA ZURI EGOKITZEN ZAIZU

Bilatzen ari zaren hori dugu Araban. Natura, ondarea, kultura, enogastronomia... Gure lurraldeko zoko guztietan daude sekretuak aurkitzeke, historia eta kultura ikasteke, bideak ibiltzeke eta jaki gozoak dastatzeke. Gure ateak zabal-zabalik dituzte bidaiari guztiek, batik bat mugikortasun urria edo dibertsitate funtzionalen bat dutenek.

Arabako erakundeak eta enpresak lankidetzan ari gara arabarrek nahiz bisitariek aukera izan dezaten gure baliabide turistikoek gozatzeko, museoetan, jatetxeetan, upategietan, parke naturaletan eta abarretan irisgarritasuna sustatzen duten programen bitartez. Azken helburua da emakume eta gizon guztiek aisialdiaz gozatzeko eta turismo informazio egokitua eskuratzeko duten eskubidea asetzeari.





Gida honek zenbait mailatako irisgarritasun baldintzak betetzen dituzten baliabide turistiko eta jarduera interesgarrienak biltzen ditu, eta horiek dibertsitate funtzionala duten pertsoneri eskaintzen dizkieten zerbitzuen berri ematen du.

Honako plan hauek proposatzen dizkizugu, besteak beste:

- Gure jauregiak eta museoak ezagutzea.
- Gure parke naturalen sare handiaz gozatzea, ekoibilaldi inklusiboen bidez.
- Gatz Haranaren paisaia eta han gainjarritako 5.500 gatz larrainak mirestea.
- Arabako Errioxan zehar ibiltzea, mahastiz inguratutako Erdi Aroko hiribilduetan eta upategietako kalatuetan.
- Gure bideetatik paseatzea eta gure natura bizitzea.
- Gasteiz eta haren erakarren guztiak bisitatzea.

Eta egin ezazu zeure kasa. Ahalik eta askatasun handienaz. Ezagut gaitzazu eta merezi duzun moduan goza dezazun gureaz.

#arabairisgarriada



ELKAR

Hurbilekoa. Batak bestearekin. Bata eta bestea. Batak besteari.
Beste norbaitekin batera, aldi berean.

02

GIDA HAU HOBETO ULERTZEKO INFORMAZIO ERABILGARRIA

Irakurleak argitalpen honen edukia hobeto uler dezan, han erabilitako ikonografia azaltzen duten terminoen eta kontzeptuen glosario bat osatu dugu.





DIBERTSITATE FUNTZIONAL FISIKOA

Gurpil-aulkiak erabiltzen dituzten edo mugikortasun urria duten pertsonak



IKUSMENEKO DIBERTSITATE FUNTZIONALA

Itsua eta ikusmen urria duten pertsonak.



ENTZUMENEKO DIBERTSITATE FUNTZIONALA

Gorrek eta entzumen urria duten pertsonak.



ADIMENEKO DIBERTSITATE FUNTZIONALA

Gaitasun kognitibo mugatua duten pertsonak.



DIBERTSITATE FUNTZIONAL ORGANIKOA

Arnasa hartzeko zailtasunak dituzten edo dieta zehatzak behar dituzten pertsonak.

KOLOREEN ESANAHIA

(Euskadiko irisgarritasun turistikoko irizpideetan oinarrituta)

BERDEA (IRISGARRIA)

Irizpide guztiak betetzen ditu, dibertsitate funtzionala duten pertsonak establezimendura modu autonomoan sartu eta hura erabil dezaten.

ANBARRA (ZIRKULATZEKO MODUKOA)

Irisgarritasuneko eta autonomiako irizpide gehienak betetzen ditu.

GORRIA (EZ IRISGARRIA)

Ez ditu irizpide horietako gehienak betetzen.



GUNE

Espazio zati bat. Zerbaitetarako zehazki okupatutako lekua.
"Une"; momentu, hitzaren aldaera.



03

LEKUAREN PLANOA, EZER EZ GALTZEKO


A. VARONATARREN DORRE-JAUREGIA	14. or.
B. ARTZINIEGAKO ETNOGRAFIA MUSEOA	15. or.
C. IRUÑA-VELEIAKO ARKEOLOGIA AZTERNATEGIA	17. or.
D. AGURAINGO HIRIGUNE HISTORIKOA	18. or.
E. ARBULUKO ELIZA	19. or.
F. GUARDIA	
BISITA GUARDIARA	22. or.
ERREGEEN ANDRA MARIA ELIZA	24. or.
BARBAKANA URMAEL ZELTIBERIARRA	25. or.
VILLA LUCIA ARDOAREN INTERPRETAZIO ZENTROA	31. or.
WINE OIL SPA VILLA DE LAGUARDIA	32. or.
G. BODEGAS VALDEMAR UPATEGIA	26. or.
H. BODEGAS FAUSTINO UPATEGIA	28. or.
I. BODEGAS VIÑA REAL UPATEGIA	29. or.
J. BODEGAS BAIGORRI UPATEGIA	30. or.
K. GATZ HARANA	36. or.
L. SANTA KATALINAKO LORATEGI BOTANIKOA	39. or.
M. URAREN MUSEOA	40. or.
N. SANTXOTENA LANTEGI-MUSEOA	41. or.
O. VASCO-NAVARRO TRENBIDEAREN BIDE BERDEA	44. or.
P. VALDEREJOKO PARKE NATURALA	45. or.
Q. GORBEIAKO PARKE NATURALA	46. or.
R. IZKIKO PARKE NATURALA	47. or.
S. GASTEIZ	
SANTA MARIA KATEDRALA	52. or.
BIBAT MUSEOA	54. or.
ARTIUM, ARTE GARAIKIDEN EUSKAL ZENTRO-MUSEOA	55. or.
ERAZTUN BERDEA	56. or.

ALAVABUS

www.araba.eus/alavabus

Arabako Foru Aldundiak eskainitako hiri arteko garraio zerbitzu publikoak modu eraginkorrean lotzen du Gasteiz probintziako eskualdeekin, autobus modernoekin eta irisgarrien flotaren bitartez. Ibilbideei eta ordutegiari buruzko informazio gehiago hemen:

www.araba.eus





HARRIA

Jatorri naturaleko material oso trinkoa.
"Piedra" euskaraz. Ondoen kontserbatzen den materiala da.

04

IBILALDIAK HISTORIATIK HARRIEK HITZ EGINGO BALUTE...



Araban, gure historia xuxurlatzen duten sekretu ugari daude han-hemenka. Edonora begiratuta ere aurki daiteke monasterio bat, jauregi bat, dorretxe bat edo arkeologia aztarnategi bat. Iraganean murgiltzeko aukera ematen duten makina bat leku daude, eta egunez egun egokitzen ari dira, dibertsitate funtzionala duten pertsoneri atea irekitzeko.



VARONATARREN DORRE-JAUREGIA

Real kalea 11. 01423 Villanañe
945 353 040 · www.anaturismo.com/lugares/torre-palacio-varona

Monumentu nazional izendatu zuten 1949an, eta monumentu-multzo historiko-artistiko 1982an.

Varonatarren dorre-jauregiak, izaera militar nabariko arkitektura konplexuak, ez du parekorik probintzia osoan, eta Araban babes erretena gordetzen duen gotorleku bakarra da. Gaur egun, Varonatarren familiako (XII. mendea) ondorengo zuzenen jabetza da oraindik ere, eta istorio zein legenda ugariko toki magikoa da, irudimenari hegan egiten uzteko modukoa.

IRISGARRITASUNARI BURUZKO OHARRA

Dorre-jauregiak igogailua du, eta areto guztietara sar daiteke, goiko solairura izan ezik. Gainera, ikusmenezko eta ukimenezko seinale eta argibide mordoak du, orientazioa errazteko.





ARTZINIEGAKO ETNOGRAFIA MUSEOA

Arteko aldapa 12. 01474 Artziniega
945 410 577 · www.artziniegamuseoa.org

Etnografia museo honek, 3.700 metro karratuan, Artziniegako eta Aiara Haraneko biztanleen landako zein hiriko bizimodua birsortzen du. Eraikin historiko birgaitu horri esker, landako Arabarako bidaia egiteko aukera izango dute bisitariek, bertatik bertara.

IRISGARRITASUNARI BURUZKO OHARRA

Nahiz eta guztiz irisgarria ez izan, bisitatu daiteke, eta, gainera, zeinu hizkuntzan espezializatutako langile bat du.





IRUÑA-VELEIAKO ARKEOLOGIA AZTERNATEGIA

01195 Tresponde
618 539 353 · www.veleia.com

Monumentu multzo izendatu zuten 1984an.

Egindako ikerketa arkeologikoen arabera, Iruña-Veleiako arkeologia aztarnategiaren okupazioaren historiak 500 urte iraun zuen, K.a. lehen milurtekotik K.o. V. mendera arte, eta hura bisitatzeko erromatarren garaiko zein erromatarren aurreko garaiko Arabaren erdigunera bidaiatzea dakar.

Veleia hiri erromatar zaharrean *macellumaren* (azoka publikoa), hiri-harresiaren, tenplu baten eta *domus* motako etxebizitzan (garai horretako familia aberatsek izan ohi zituztenak) aztarnak ikus daitezke.

IRISGARRITASUNARI BURUZKO OHARRA

Aztarnategia ez dago prestatuta gurpil aulkiarekin ibiltzeko, baina zirkulatzeko modukoa da. Aintzat hartu behar da indusketen artean doazen bidexkak estuak direla, eta ez direla irisgarriak.





AGURAINGO HIRIGUNE HISTORIKOA


Zabalarte eraikina. Kale Nagusia 8. 01200 Agurain
945 302 931 · www.arabakolautada.eus

Erdi Aroko hiribildu hori Aguraingo herrixka zaharraren gainean eraiki zen, 1256an. Hiru kale paraleloz osatutako hirigune historikoa du, eta, bi muturretan, harresia indartzen duten bi eliza-gotorleku daude: iparraldean, Santa Maria, eta hegoaldean, San Juan.

Haren ezaugarriarik ikusgarrienetako bat "olbeak" dira, alegia, zurezko edo harrizko zutabeei esker sostengatutako ataripeak edo galeriak, fatxadak inguratzen dituztenak eta kaleei itxura eroso eta deigarria ematen dietenak.

IRISGARRITASUNARI BURUZKO OHARRA

Hirigune historikoa irisgarria da mugikortasun urria duten pertsonentzat, Kale Nagusia izan ezik.





ARBULUKO ELIZA

Burgeluko Udala. Burgelu etorbidea 17. 01192 Burgelu
945 420 713 · www.elburgo-burgelu.eus

San Martin eliza Arbulu herri txikian dago. Haren barruan, aberastasun handiko dekorazio aztarnak daude. Ganga-giltzarriak oparo polikromatuta daude, eta haren hormetan horma-pintura aztarnak ikus daitezke. Koruan eta behe koruan XVI. mendeko pintzelkaden aztarnak daude.

IRISGARRITASUNARI BURUZKO OHARRA

Nahiz eta mugikortasun urria duten pertsonak bisitatzeko egokituta ez egon, gurpil aulkiarekin zirkulatzeko modukoa da.



MAHATSA

Baia edo gutxi gorabehera biribila den pikor urtsua, mahatsondoaren fruitua. Ardo edo zuku zapoetsuak egiteko erabiltzen da.

05

ARDOAREN KULTURA PAISAIAREN ETA JENDEAREN ARTEKO SINBIOSIA



Arabako Errioxa probintzia honen bitxietako bat da. Eskualde horrek gure lurraldeko onena bildu eta ardo bikain bihurtzen du. Baina, horrez gain, leku hori paregabea egiten duten beste faktore batzuk biltzen eta uztartzen ditu Arabako Errioxak: ondareak eta modernotasunak bat egiten dute, eta aurkitzeke dauden enigma ugarirekin gozarazten digute.


GUARDIA. SAKON SARTZEN DEN HIRIBILDUA



BISITA GUARDIARA

Garcetas etxea. Kale Nagusia 52. 01300 Guardia
945 600 845 · www.laguardia-alava.com

Talaia baten gainean dago Guardia, mahastiz inguratuta, Ebroko haran osoa zaintzen duela. Hiribildu horren harresiak Erdi Aroko trazadurari eusten dio oraindik, eta hura plazen eta kalekhen bidez elkarri lotutako hiru kale nagusi estuk eta luzangak osatzen dute. Lurpean haitzuloak daude, eta, han, Arabako Errioxako ardoagintza erakundeak eraberritu eta gordetzen da oraindik ere.





IRIGARRITASUNARI BURUZKO OHARRA

Kaleek zoladura lau eta uniformea dute, irisgarriak dira, eta erosoak dira gurpil aulkian ibiltzeko.

Turismo bulegoa egokituta dago, arrapalak eta igogailuak baititu, eta ibilbide irisgarriko kalatu zahar bat bisitatzeko aukera dago. Gurpil aulkian bisita daitezkeen Erdi Aroko kalatu gutxi horietako bat da.

Hiribilduari buruzko informazioa ematen duten seinale guztiak goierliebean eginda daude, eta brailleko transkripzioak nahiz kontraste kromatikoa dituzte.




ERREGEEN ANDRA MARIA ELIZA

Kale Nagusia 1. 01300 Laguardia
945 600 845 · www.laguardia-alava.com
Erreserbak > Guardiako Turismo Bulegoan

Erregeen Andra Maria elizaren baitan, XIV. mendearan amaierako arkupe bat dago, XVII. mendean polikromatutakoa. Guardiako turismo bulegoak bisita gidatu inklusiboak eskaintzen ditu.

IRISGARRITASUNARI BURUZKO OHARRA

Zurezko arrapala du, elizarako igarobidea gainditzeko.





IRISGARRITASUNARI BURUZKO OHARRA

Gurpil aukian bisita daiteke, eta, nahiz eta beste dibertsitate funtzional batzuei erabat egokituta ez egon, zirkulatzeko modukoa da.

Kale nagusia, Mercadal Atearen ondoan(muinoaren hegoaldean)
01300 Guardia
945 600 845 · www.laguardia-alava.com
Erreserbak > Guardiako Turismo Bulegoan

BARBAKANA URMAEL ZELTIBERIARRA

Barbakana urmael zeltiberiarra orain dela 2.100 urte eraiki zen, iturburu batetik zetozen 300.000 litro ur baino gehiago biltzeko. Leku hori paregabea da, eta 1998an aurkitu zen, esku-hartze arkeologiko baten ondorioz. Europan dagoen Burdin Aroko urmaelik handiena da.



ARABAKO ERRIOXAKO UPATEGIAK. GURE LURRALDEARI ZUKUA ATERAZ

Arabako Errioxako upategi ugari beren instalazioak egokitu dituzte, dibertsitate funtzionala duten pertsonak bisita ditzaten, eta, beraz, bisita erabat irisgarriak eskaintzen dituzte, eta aukera ematen dute lurralde honen —zeinetan ardo ona tradizioa eta kultura baiten— koloreez, formez eta sentsazioez gozatzeko.



BODEGAS VALDEMAR UPATEGIA

Logroñoeko Bide Zaharra kalea 24. 01320 Oion
945 622 188 · www.valdemar.es

Familia upategi hau 1889an ireki zen, eta enoturismoari lotutako zenbait jarduera eskaintzen ditu, familia bisitetatik hasi eta enologoekin dastaketak eta afariak antolatzeraino. Wine Spectator aldizkariaren arabera, upategi horretako ardoak munduko 50 onenen artean daude. Horra hor pizgarri bat bisita egiteko eta upategia bere osotasunean ezagutzeko.





IRISGARRITASUNARI BURUZKO OHARRA

Bodegas Valdemar upategiak dibertsitate funtzional orori egokitutako lehenengo esperientzia enoturistiko irisgarri eta inklusiboa garatu du. Ibilbide enoturistiko berritzailea, usaimena, ukimena eta dastamena erdian jartzen dituena.

Halaber, honako hau eskaintzen du:

- *Sarrerako bideo bat eta dastaketei buruzko bideo bat, zeinu hizkuntzako interpretea eta guzti*
- *Bisitak zeinu hizkuntzan, QR kodearen bitartez*
- *Erraz irakurtzeko moduko piktogramak, ulermena bermatzeko*
- *Bisitaren liburuxkako etiketak, ardoen etiketak, ibilbidean zehar dauden aroma-jokoak eta abar braillera itzulita daude*

Horrez gain, "premia bereziak dituzten pertsonentzako arretaren ziurtagiria" dute.




BODEGAS FAUSTINO UPATEGIA

Logroño-Iruña errepidea (N-111) zk.g. 01320 Oion
945 622 500 · www.bodegasfaustino.com

Bodegas Faustino upategiak 150 urte baino gehiagoko esperientzia du maila handiko ardoak egiten eta ontzen, eta, hortaz, merezitako izen ona du nazioartean. Upategiak 650 hektarea mahasti ditu Arabako Errioxan bertan.

IRISGARRITASUNARI BURUZKO OHARRA

Arkitektura oztoporik gabeko ibilbidea eskaintzen du, mugikortasun urria duten edo gurpil aulkia erabiltzen duten pertsonen egokitutakoa.





IRISGARRITASUNARI BURUZKO OHARRA

Itsuei eta ikusmen urria duten pertsoneri erabat egokitutako Espainiako lehenengo upategia da; izan ere, seinale bereziak dituzenez, bisita osoa egiteko aukera ematen du. ONCEren "Urrezko kaskabiloa" saria jaso du.

Gainera, erabat irisgarria da gurgil aulkia erabiltzen duten pertsonentzat.

N-232a, 48. km. 01321 Guardia

941 304 809 · www.cvne.com/tp-bodega/vina-real

BODEGAS VIÑA REAL UPATEGIA

Upategi hori 1920ko hamarkadan sortu zen, eta Arabako Errioxan ardo onduak haritzezko barriketan egiten hasi zen lehenetako bat izan zen. Philippe Massiere arkitekto frantsesak diseinatu zuen upategi berria, eta, honezkerok, diseinuaren eta "ardoaren arkitektura" delakoaren ikonoa da.






BODEGAS BAIGORRI UPATEGIAK

Gasteiz-Logroño errepidea, 53. km. 01307 Samaniego
945 609 420 · www.bodegasbaigorri.com

Bodegas Baigorri upategiak, kristalezko ontzi erraldoi eta ikusgarriaren atzean, lur azpiko zazpi solairu ezkutatzen ditu, eta, horietan, grabitateak ardo bereziak egitearen protagonismo osoa hartzen du.

IRISGARRITASUNARI BURUZKO OHARRA

Solairu guztietara iristen diren arrapalak eta igogailua ditu.





ZENTZUMENEK GOZATZEKO LEKUAK



VILLA LUCIA ARDOAREN INTERPRETazio ZENTROA ZAPORE HANDIKO IRAKASPENA

Logroño errepidea zk.g. 01300 Laguardia
945 600 032 · www.villa-lucia.com

Villa Lucia ardoaren munduari buruzko museo bat baino askoz gehiago da. Zentro paregabea da, galtzeko eta Arabako Errioxako onena aurkitzeko aukera ematen duena. Zentro horrek aromen, usainen eta koloreen dastaketa birtualak eskaintzen ditu, bai eta panel didaktikoak, 4D proiektzio bat eta publiko zabalari egokitutako jinkana gastronomikoak ere.

Hori guztia Guardia hiribildu harresidunari eta Arabako Errioxako mahasti piloari begira dagoen lorategi idilikoa eta guzti duen leku bikainean egiten da.

IRISGARRITASUNARI BURUZKO OHARRA

*Erabat irisgarria. **Equalitas Vitaek** emandako irisgarritasun zigilua du.*



GUARDIAKO WINE OIL SPA VILLA

MURGIL ZAITEZ SENTSASIOEN MUNDUAN


San Raimundo hiribidea 15. 01300 Laguardia
945 600 560 · www.wineoilspa.com

Nork bere burua zaintzeko eta mimatzeko lekua da. Erlaxazioa helburu duten 1.000 metro karratu inguru dira, eta, besteak beste, ardoterapia, txokolaterapia, gereziterapia, kromoterapia, musikoterapia eta aromaterapiako tratamendu aurreratuak eskaintzen ditu.

IRISGARRITASUNARI BURUZKO OHARRA

Dibertsitate funtzional mota guztiei egokituta.

Equalitas Vitae irisgarritasun zigilua du.





ARABAKO ERRIOXAKO ARDOAREN IBILBIDEA LURRALDE HAU DASTATZEKO MODURIK ONENA

Kale Nagusia 68. 01300 Guardia
945 600 710 · www.rutadelvinoderiojaalavesa.com

Arabako Errioxako ardoaren ibilbideak paisaia paregabean –Erdi Aroko hiribilduen eta abangoardiako arkitekturaren arteko mahasti pila– kokatutako esperientzia enologikoa eskaintzen du. Halaber, aisia jardueren nahiz jarduera enturistikoen eta gastronomikoen eskaintza handia du urte osoan zehar.

IRISGARRITASUNARI BURUZKO OHARRA

Ibilbide enologiko irisgarria da, eta Pertsona guztientzat irisgarriak diren Espainiako ibilbide enologikoen gidan –PREDIFek argitaratu du, ONCE Fundazioaren parte-hartzearekin– jasota dago.



GATZA

| Elikagaiak gazitzeko eta kontserbatzeko erabilitako osagai zuria.
Ur gazia edo gatzuna lurrundutakoan sortzen da.



06

EZEZAGUN HANDIAK EZAGUTUZ

URA, GATZA ETA HISTORIA LUZEA DUTEN LANDAREAK

Arabak misterio handiak ezkutatzen ditu, eta makina bat esperientzia bizitzeko aukera ematen du: ura, gatza, lorategia, zura... Esperientzia paregabeak, ezagutza elikatzeke jakin-mina pizten dutenak, egunerokotasunera jakintsuago, ikasiago, biziago itzultzeko.



GATZ HARANA

Real kalea 42. 01426 Gesaltza Añana
945 351 111 · www.vallesalado.com

Gatz Haranak, Gesaltza Añanaren alboan kokatutakoak, harritu eta maitemindu egiten du. Leku hori bisitatzek esperientzia paregabeaz gozatzea dakar: munduko multzo arkitektoniko, paisajistiko, arkeologiko, geologiko eta historiko berezietako bat ezagutzea. Zergatik? Gatz Harana gatzaren historiaren munduko adibide adierazgarrietako bat delako.

Gatzaga hauek 7.000 urte baino gehiagoko historia dute, eta Nazio Batuek “Munduko Nekazaritza Ondarearen sistema garrantzitsu” izendatu dute.





IRISGARRITASUNARI BURUZKO OHARRA

Bi ibilbide irisgarri ditu:

- **Ikusmen urriko pertsonentzako bisita**
Kanpoko ibilbideak Gatz Haranean murgiltzea eta haren soinuez eta giroaz inguratzea du helburu. Barruko ibilbidean, bisitariak haranaren arkitektura bereziaren eta gatz ekoizteko prozesuaren berri izango du, bereziki horretarako diseinatutako maketa baten bitartez.
- **Mugikortasun urria duten pertsonentzako bisita**
200 metro inguruko luzera du. Ontziratze eremutik abiatu eta munduan bakarra den paisaiaren edertasuna miresteko aukera ematen duen plataforma bateraino iristen da. Aukera ematen du Añanako gatzaren sekretuen berri izateko, eta jakiteko nazioarteko sukaldari nagusiek munduko gatzik onenetakotzat dutela.

Halaber, ikusmen urria duten pertsonen egokitutako gatz dastaketak eskaintzen ditu, baita pertsona guztiek zirkulatzeko moduko gatz spa ere, ur gaziaren onura terapeutikoak bertatik bertara ezagutzeko aukera ematen duena.





SANTA KATALINAKO LORATEGI BOTANIKOA

Interpretazio zentroa. 01191 Tresponde. Iruña Oka
688 897 048 · www.alavaturismo.eus

Santa Katalinako lorategi botanikoa Tresponde herrian dago. Erdi Aroko historia aurkituko duzue bertan, XIII. mendeko monasterio baten hondar egokituak eta hainbat uharka, eta balore ekologiko eta ingurumenezko handia, ia mila landare espezie baitaude bost kontinenteetatik ekarriak.

Oso leku berezia da, eta pribilegio handia du; izan ere, munduko lehen izar parke izendatu dute, zeruari behatzeko baldintza egokiak betetzen ditu-eta.

IRISGARRITASUNARI BURUZKO OHARRA

Lorategi botanikoa irisgarria da, baina malda handiak ditu zati batzuetan. Hori dela eta, irisgarri bihurtzen duen ibilgailu elektriko bidezko garraio zerbitzu egokitua dago, lorategiaren zati handi batean zehar ibiltzeko.

Halaber, brailleko seinaleak ditu, bai eta beste dibertsitate funtzional batzuei egokitutako bisitak ere.





URAREN MUSEOA

01423 Sobrón
945 359 235 · www.museoagua.com

Uraren Museoa gune interaktiboa da, eta, han, teknologia modernoek eta simulazioek ikasteko eta ondo pasatzeko aukera ematen dute. Umeak zein helduak baliabide naturalak kontserbatzearen eta ura modu arduratsuan kontsumitzearen inguruan sentsibilizatzea du helburu.

Arabaren hego-mendebaldean dago, urak markatutako historia duen ingurune natural pribilegiatuan.

IRISGARRITASUNARI BURUZKO OHARRA

Dibertsitate funtzionala duten pertsonentzako aparkalekua du, eraikinetik 40 metro eskasera. Uraren Museoak solairu bakarra du, eta, beraz, erabat irisgarria da mugikortasun urria duten edo gupil aulkia erabiltzen duten pertsonentzat.





IRISGARRITASUNARI BURUZKO OHARRA

Eremu jakin batzuk izan ezik, tailer-museoaren instalazioak gurpil aulkian ibiltzeko egokituta daude.

Barrataguren zk.g. 01474 Artziniega
945 396 664 · www.santxotena.org

SANTXOTENA LANTEGI-MUSEOA

Santxotena lantegi-museoak bildumaz gozatzear batera Xabier Santxotena (Jorge de Oteizaren dizipulua) eskultorearekin harreman zuzena izateko aukera ematen dio bisitariari. Esperientzia paregabe eta esklusibo horrek artearen munduan murgiltzen du bisitaria, artista izango balitz bezala. Museoak formatu originala eta paregabea du, inor axolagabe utziko ez duena.





LOREA

Landare askoren kimua, koloreetako hostoz osatutakoa.
Norbaiti esandako laudorioa, izen berezitzat ere erabilitakoa.



07

GURE NATURA ZURE ESKU NATURAREKIN AURKITZEKO BIDEAK ETA PARKEAK

Araba, zerbait izatekotan, natura da. Lurraldearen lau puntu kardinaletan berdea da nagusi. Mendiak, haranak, basoak..., bideek eta bidexkek zeharkatuta. Horietako asko egokituta daude, dibertsitate funtzionala duten pertsonen bisita ditzaten.



VASCO-NAVARRO TRENBIDEAREN BIDE BERDEA

BIDE BERDEAREN INTERPRETAZIO ZENTROA

Geltokiaren kalea. 01128 Antoñana
945 410 577 · www.montanaalavesa.com

Vasco-Navarro trenbide zaharraren trazadurak aukera ematen du naturaren bikaintasunaz gozatzeko. Debagoienetik (Gipuzkoa) Nafarroaraino zihoan trenbide zahar hori Arabako hiriburutik igarotzen da. Ibilbidea erabat egokituta dago oinezkoentzat nahiz txirridularientzat.

IRISGARRITASUNARI BURUZKO OHARRA

Ibilbideak lur trinkozkoak dira, eta, oro har, gurpil aulkiak erabiltzen dituzten pertsonentzat egokiak badira ere, aintzat hartu behar da puntu jakin batzuetan mugak aurki ditzaketela, lursailaren orografia dela-eta.

Bide Berdearen interpretazio zentroan (Antoñana) dibertsitate funtzional fisikoa duten pertsoneri egokitutako tandem bizikletak alokatu eta braillezko informazio panelak azter daitezke.





VALDEREJOKO PARKE NATURALA

PARKEKO INTERPRETAZIO ZENTROA

Parketxea. 01427 Lalastra
945 353 146 · www.alavaturismo.eus

Valderejok –parke natural izendatu zuten 1992an– ekosistema eta paisaia ugari ditu, eta horrek Euskadiko naturagune aberatsenetako bat bilakatzen du.

Parkea hiru naturagunetan banatuta dago:

- gailurrak
- mendi-hegal basotsuak
- haranaren hondoko belardi eta lur landuak

Bitxitasun gisa, nabarmentzekoa da Euskadiko sai arreen koloniarik ugariena bizi dela Valderejoko harkaiztietan.

IRISGARRITASUNARI BURUZKO OHARRA

Ikusmen urria duten pertsonen egokitutako 5 kilometroko ibilbide didaktikoa du. Han, brailleko testua duten informazio panelak daude, eta naturagune horretako fauna eta flora bereizgarrienaren ezaugarriak ageri diren irudiak ere badaude, moztuta.

Halaber, zenbait ibilbide daude gurpil aulkiak erabiltzen dituzten pertsonentzat, eta ekoibilaldi inklusiboak antolatzen dira.





GORBEIAKO PARKE NATURALA

PARKEKO INTERPRETAZIO ZENTROA

Lekanda zk.g. 01139 Sarria
945 430 709 · www.alavaturismo.eus

Gorbeia mendi mitikoa eta haren gailurrean dagoen gurutzea dira parke horren buru. Mendi hori Arabako zein Bizkaiko altuena da, eta ikur bat da euskaldunentzat. Gainera, haren hegaletan ohi ez bezalako paisaiak ezkutaten dira, hala nola Itzina mendigunea —horma ia bertikalak ditu—; Mairuelegorreta haitzuloa —haren zulobideak Euskadiko sakonetakoak dira—; eta pagadi baso handiak.

Parkearen inguruetan, Oroko Santutegia eta Goiuri (100 metrotik gorako ur-jauzi ederra) bisita daitezke.

IRISGARRITASUNARI BURUZKO OHARRA

Mendiko ibilbideak ez daude mugikortasun arazoak dituzten pertsonen egokituta baina badago zirkulatzeko moduko bidexka bat, erakusgarri dena parke natural berezi honetan sartu nahi dutenentzat.





IZKIKO PARKE NATURALA

PARKEKO INTERPRETAZIO ZENTROA

Afuera kalea zk.g. 01129 Korres
945 410 502 · www.alavaturismo.eus

Izki, funtsean, basoa eta harria da, eta bisitariari aukera ematen dio bere altxor naturalak eta kulturalak aurkitzeko, askotariko zailtasun mailako eta luzerako 15 bidexkaren sarearen bitartez.

Ibilbide horietako bat Korresko sakanetik –Soila eta Muela mendien arteko haitzarte ederra– igarotzen da. Sakan horrek harizti artean ibiltzeko aukera ematen du, arrano beltzen, sai eta sai zurien begiradapean.

Sare horren bitartez, haran eta mendi horien historiaren berri ematen duen kultura ondare aberatsera iristen da: haitzulo artifizialetera, ermitetara, herrixka gotortuetara, tumulueta, karobietara, gazteluetara, aztarna arkeologikoetara...

IRISGARRITASUNARI BURUZKO OHARRA


Ibilbideak ez daude egokituta mugikortasun arazoak dituzten pertsonen. Hala ere, Izkiko interpretazio zentroak talde bakoitzaren beharrei (zailtasun mailari nahiz iraupenari dagokienez) egokitutako bisita gidatuak antolatzen ditu.

TURISMO AKTIBOA

Arabak dibertsitate funtzional orori egokitutako kanpoko ekintza ugari eskaintzen ditu. Zenbait hipika taldek antolatutako itsuentzako zaldi gaindeko ibilbideak, ibilaldiak buggy elektrikoan Arabako Errioxako mahastietatik, itsuentzako eskalada/rappela Antoñanan, hiru zikloturismo-ibilbide gure lurraldeko zenbait lekutatik...

Horrez gain, Montes Solidarios elkarteak dibertsitate funtzionala duten pertsoneri natura irisgarri egitea du helburu, eta irteerak antolatzen ditu, Joelette mendiko aulkiak eta itsuentzako nahiz ikusmen urria duten pertsonentzako barra direkzionalak erabilia. Kontsulta ezazu Arabako zenbait naturagunetara egingo diren irteeren egitaraua.

www.montesolidarios.org







PINTXO

| Euskadiko tabernetan zerbitzatzen diren aperitiboak.
Tokiko kultura gastronomikoaren muina dira.

08

GASTEIZ HIRIBURU IRISGARRIA

Gasteiz, Arabako eta Euskadiko hiriburua, milaka urteko hiria da, ondare historiko eta artistiko aberatsa du, baita kultura- nahiz kirol-jarduera ugari ere. Hirigune historikoa edo *Erdi Aroko almendra* irisgarria da mugikortasun urria duten pertsonentzat, arrapala mekanikoak eta igogailuak ditu-eta.

Bidaiariek hamaika ibilbide eta bisita gidatu inklusibo dituzte hiriko turismo baliabide nagusietara. Gainera, Gasteizko museo guztiak irisgarriak dira, mugitzeko zailtasunak dituzten pertsonentzako sarbideak eta zerbitzuak dituzte, eta doako gorpil aulkiak eskaintzen dituzte bisitak egiteko.



EZINBESTEKO BISITAK



SANTA MARIA KATEDRALA

Santa Maria plaza zk.g. 01001 Vitoria-Gasteiz
945 255 135 · www.catedralvitoria.eus

Santa Maria katedrala —katedral zaharra esaten dio jendeak— Gasteizko, Arabako eta Euskadiko ondare historiko-artistikoaren altxorretako bat da. Arkeologia eta zaharberritze lanek informazio baliotsua eman digute, eta oraindik ere ematen digute, hiriaren sorreraren eta azken mila urteetan izandako bilakaeraren inguruan.


Haren “Obretan eta irekita” bisita-egitarau originalak Europa Nostra 2002 saria jaso zuen, eta mundu osoan ospetsuak diren zenbait idazle liluratu eta inspiratu ditu, hala nola Paulo Coelho eta Ken Follet.



IRISGARRITASUNARI BURUZKO OHARRA

Mugikortasun urria duten pertsonak kanpandorrera hel daitezke eta hiriaren ikuspeirik onenei behatu diezaiekete, dorreko erlojuaren pisuak zintzilikatzeko erabilitako zulo zaharrean jarritako igogailuan igoz.

Eliz atariaren estalkipearen mailara iristeko erabat irisgarria den igogailua dago.





BIBAT MUSEOA

Aitzogile kalea 54. 01001 Vitoria-Gasteiz
945 203 700 - www.alavaturismo.eus

XVI. mendeko Bendaña jauregia da Bibat museoaren egoitza. Arkeologia Museoa (Historiaurretik Erdi Arora bitarteko Arabako historiaren berri ematen du) eta Fournier Karta Museoa (munduko garrantzitsuentzat hartzen den karta-bilduma biltzen du) batzearen ondorioz sortu zen gunea bitxi hau.

IRISGARRITASUNARI BURUZKO OHARRA

Arkeologia Museoak igogailua du, bai eta mugikortasun urriko pertsonak zirkulatzeko moduko ibilbidea ere.

Fournier Karta Museora sartzeko, erabat irisgarria den arrapala dago.





ARTIUM, ARTE GARAIKIDEKO EUSKAL ZENTRO-MUSEOA

Frantzia kalea 24. 01002 Vitoria-Gasteiz
945 209 000 · www.artium.org

Artium museoa erreferente bat da arte garaikideko museoen artean, Euskadiko nahiz Espainiako beste leku batzuetako arte-funts propioak dituelako. Museo horren aretoetan, sorkuntza garaikideko teknika guztiak erabilia egindako 3.000 artelani baino gehiagori behatzeko aukera izango dute bisitariek.

IRISGARRITASUNARI BURUZKO OHARRA

Museoak ONCErekin adostutako talde-bisitak antolatzen ditu. Horrez gain, entzumen urria duten pertsonentzako bisitak eskaintzen ditu.



ERAZTUN BERDEA

ATARIA (SALBURUKO HEZEGUNEEN INTERPRETAZIO ZENTROA)

Ataria. Biosferaren pasealekua 4. 01013 Vitoria-Gasteiz
945 254 759 · www.vitoria-gasteiz.org

Gasteizko Eraztun Berdea hiria erabat inguratzen duten zenbait parkez osatuta dago, eta bidaiariei naturaz gozatzeko aukera ematen die ia beren ostatuaren atarian. Erakundeen apustu deliberatu hori izan zen, hain zuzen ere, 2012an Gasteiz Green Capital izendatzeko arrazoi nagusietako bat.

Salburuko parkeko hezeguneeak eta urmaelek, haren animalia-bizitza aberatsak eta harizti hostotsuek harritu egiten dute bisitaria; Zabalganak ibilaldi atseginak eskaintzen ditu erkametz baso naturalean –ikuspegi ederreko muino txikiak ditu han-hemenka–; eta Armentia basoak, astigar, elorri zuri, elorri beltz eta lahar artean, Gasteizko mendiekin lotzen du hiria.

Errekaleorrek, Zadorrak eta Olarizuk osatzen dute Eraztun Berdea... oraingoz; izan ere, aurreikusita dago hura parke berriak eginez zabaltzea.

Eraztun Berdeak parke horien historia, fauna eta flora ezagutzeko zenbait instalazio ditu: Ataria, Dehesa Etxea eta Olarizuko lorategi botanikoa.

IRISGARRITASUNARI BURUZKO OHARRA

la ibilbide guztiak irisgarriak edo zirkulatzeko modukoak dira.

Atarian, Salburuko Hezeguneen interpretazio zentroan, ibilgailu elektriko batzuk daude, 'scooter' eta 'buggy' motakoak (sei lagun sartzen dira), mugikortasun urria duten pertsonen Eraztun Berdera sartzeko aukera emateko. Salburuko parketik eta Olarizuko lorategi botanikotik ibiltzen dira horiek.





BISITA GIDATUAK

GASTEIZKO TURISMO BULEGOA

Espainia plaza 1. 01005 Vitoria-Gasteiz
945 161 598 · www.vitoria-gasteiz.org

Gasteizko turismo bulegoak hainbat ibilbide antolatzen ditu hiria, bertako jauregiak, lorategiak, gastronomia eta abar ezagutzeko.

Hona hemen programatutako bisita inklusibo batzuk:

- **Erdi Aroko bisitak**

Gasteizko Erdi Aroko hirigunea Espainiako iparralde osoan ondoen zainduta dagoenetako bat da, eta ederrenetariko bat. Bisita gidatu hau **Erdi Aroko almendrako** gune enblematikoenetatik eta antzinako harresiaren aztarnetatik igarotzen da. Talde-bisita inklusiboak dira, eta zeinu hizkuntzako interpretearekin egiten dira.

- **Ibilbide literarioak**

Ibilbide horietako bat da ikusmeneko dibertsitate funtzionala duten pertsonentzako *Amodio debekatuen kasua* eleberraren bisita literario inklusiboa. Bisita horretan, XIX. mendeko Gasteizen berri ematen digu suspentse eleberririk horren egile Marta Extramianak, nobela garatzen den txokoak oinarri hartuta.

- **Beste ibilbide batzuk**


Gaikako ibilbide inklusiboak ere antolatzen dira: gastronomikoak, historikoak, haurrentzako eta beste zenbait.

IRISGARRITASUNARI BURUZKO OHARRA

Gasteizko turismo bulegoa gune guztiz egokitua da. Besteak beste, honako baliabide hauek eskaintzen ditu: gorren irisgarritasuna hobetzen duen begizta magnetikoa, ikusmen urria duten pertsonentzako (presbiziadunak barne) lupa berezia, kontraste bisualeko zerrendak...

Halaber, hiriko baliabide turistikoei buruzko kontsulta-liburuak daude, braillez.

Gainera, www.vitoria-gasteiz.org/turismo webgunean ikusmeneko dibertsitate funtzionala duten pertsonentzako ibilbide bat jaitsi daiteke MP3an. Hiru hizkuntzatan eskura daiteke: gaztelaniaz, euskaraz eta ingelesez. Horrez gain, MP4 bidezko ibilbide bat dago zeinu hizkuntzan, gorrek askatasun osoz goza dezaten hiriaz.



GASTRONOMIAREKIN GOZATUZ

Arabako gastronomiak zaletasuna, tradizioa eta berrikuntza ekartzen ditu. Kalitatezko lehengaiekiko zaletasuna, gure aurretik ibili diren sukaldarien belaunaldien errezetak eta platerak leialtasunez gordetzeko tradizioa eta sukaldaritza berrian berezko nortasunarekin nabarmentzeko gaitasunean islatutako berrikuntza.

Araba bisitatzen dutenek askotariko esperientzia enogastronomiko inklusiboak izango dituzte Arabako Errioxako upategietako bisiten eta jardueren eta Arabako Errioxako Ardoaren Ibilbidearen eskaintza baliatuz.

Eta baita Gasteizen ere. Azoka plazak, adibidez, sukaldaritza tailerrak eta dastaketak antolatzen ditu, eta garaiz erreserbatuz gero, maila askotako dibertsitate funtzionala duten pertsoneri egokitzen zaizkie. Eraikin irisgarria da, eta arrapala mekanikoak nahiz igogailu egokituak ditu.





HIRIAN NOLA MUGITU

AUTOBUS PUBLIKO (HIRIKO)

www.vitoria-gasteiz.org

Hiriko autobus guztiak plataforma baxukoak dira eta arrapala automatikoak dituzte. Gurpil aulkia behar dutenentzako bi gune erreserbatuta dituzte, gainera.

Ikusmen urria duten pertsonentzako sistema bat dago ere eta, gidariaren alboan dagoen sakagailu baten bidez, geralekuen berri ematen duten mezuen soinua aktibatzen da.

Entzumenera dibertsitate funtzionala dutenentzat, geraleku bakoitzak pantaila bat du, autobusa iristeko zenbat minutu falta diren ohartarazteko.



TRANBIA

www.euskotren.eus/eu/tranvia



TAXI ZERBITZUA

Tranbiako geralekuak dibertsitate funtzional fisikoa duten pertsonentzako irisgarriak dira, eta bagoi guztiek gupil aukietarako gune erreserbatuak dituzte.

Geraleku bakoitzean hauek daude:

- informazio puntuak braille sisteman
- entzumeneko dibertsitate funtzionala dutenentzako interfonoa
- informazio panelak altuera irisgarriarekin
- ikusmeneko dibertsitate funtzionala dutenentzat, saltzeko eta baliogabetzeko makina, saltzailea lokalizatzeko *ciberpassarekin*, eta mezua "T Modu"an nahiz Braille sisteman
- baliogabetzeko altuera bikoitza eta interfonoa "T Modu"an

Mugikortasun arazoak dituztenentzako garraio egokia eskatzeko aukera dago Gasteizen egin beharreko joan-etorrietarako.

Radio Taxi Gasteiz

www.rtaxigasteiz.com · 945 273 500

Radio Taxi Grupo Celedón

www.grupoceledon.com · 945 272 000



DENA |

Osotasuna, multzo oso bat adierazten du.
"izan" aditzaren aditzondoa ere bada.



09

**BALIABIDEEN
LABURPENA
ZURE ESKU**



ARTZINIEGAKO ETNOGRAFIA MUSEOA



Arteko Aldapa, 12. 01474 Artziniega
945 396 210 · www.artziniegamuseoa.org



SANTXOTENA LANTEGI-MUSEOA



Barrataguren, zk.g. 01474 Artziniega
945 396 664 · www.santxotena.org



VARONATARREN DORREA



Real Kalea, 11. 01423 Villanañe
945 353 040
www.ananaturismo.com



IRUÑA VELEIAKO ARKEOLOGIA AZTARNATEGIA



01195 Iruña-Oka
618 539 353 · www.alavaturismo.eus



ERREGEEN ANDRA MARIA ELIZA



Kale Nagusia, 1. 01300 Guardia
945 600 845 · www.laguardia-alava.com



BARBAKANA URMAEL ZELTIBERIARRA



Kale Nagusia, Mercadal Atearen ondoan
(muinoaren hegoaldean). 01300 Guardia
945 600 845
www.laguardia-alava.com



ARBULUKO ELIZA

 Burgeluko Udala

Burgelu etorbidea, 17. 01192 Burgelu
945 420 713 · www.elburgo-burgelu.eus



BODEGAS BAIGORRI UPATEGIA



Gasteiz-Logroño errepidea, 53. km. 01307 Samaniego
945 609 420 · www.bodegasbaigorri.com



BODEGAS FAUSTINO UPATEGIA



Logroño-Iruña errepidea (N-111), zk.g. 01320 Oion
945 622 500 · www.bodegasfaustino.com



BODEGAS VALDEMAR UPATEGIA



Logroñoeko Bide Zaharra kalea, 24. 01320 Oion
945 622 188 · www.valdemar.es



BODEGA VIÑA REAL UPATEGIA



N-232a, 48. km. 01321 Guardia
941 304 809 · www.cvne.com/tp-bodega/vina-real



VILLA LUCIA ARDOAREN INTERPRETAZIO ZENTROA



Logroño errepidea, zk.g. 01300 Guardia
945 600 032 · www.villa-lucia.com



GUARDIAKO WINE OIL SPA VILLA



San Raimundo Hiribidea, 15. 01300 Guardia
945 600 560 · www.wineoilspa.com



ARABAKO ERRIOXAKO ARDOAREN IBILBIDEA

Kale Nagusia, 68. 01300 Guardia
945 600 710 · www.rutadelvinoderiojaalavesa.com



ATARIA (ERAZTUN BERDEKO INTERPRETAZIO ZENTROA)



Biosferaren pasealekua, 4. 01013 Gasteiz
945 254 759 · www.vitoria-gasteiz.org



GORBEIAKO PARKE NATURALEKO INTERPRETAZIO ZENTROA



Lekanda, zk.g. 01139 Sarria
945 430 709 · www.alavaturismo.eus



IZKIKO PARKE NATURALEKO INTERPRETAZIO ZENTROA



Afuera kalea, zk.g. 01129 Korres
945 410 502 · www.alavaturismo.eus



VALDEREJOKO PARKE NATURALEKO INTERPRETAZIO ZENTROA



Parketxea. 01427 Lalastra
945 353 146 · www.alavaturismo.eus



URAREN MUSEOA



01423 Sobrón
945 359 235 · www.museoagua.com



SANTA KATALINA LORATEGI BOTANIKOA



Interpretazio zentroa.
01191 Tresponde. Iruña Oka
688 897 048 · www.alavaturismo.eus



AÑANAKO GATZ HARANA



Real kalea, 42. 01426 Gesaltza Añana
945 351 111 · www.vallesalado.com



VÍA VERDE DEL FERROCARRIL VASCO-NAVARRO



Calle la Estación. 01128 Antoñana
945 410 577 · www.montanaalavesa.com

GASTEIZ



SANTA MARIA KATEDRALA



Santa Maria plaza, zk.g. 01001 Gasteiz
945 255 135 · www.catedralvitoria.eus



ARTIUM MUSEOA




Frantzia kalea, 24. 01002 Gasteiz
945 209 000 · www.artium.org



BIBAT MUSEOA



Aiztogile kalea, 54. 01001 Gasteiz
945 203 700 · www.alavaturismo.eus



TURISMO BULEGOAK



AMURRIOKO TURISMO BULEGOA



La Casona eraikina. Aldai kalea 3. 01470 Amurrio
945 393 704 · www.amurrio.org



ARTZINIEGAKO TURISMO BULEGOA



Goiko plaza, zk.g. 01474 Artziniega
945 396 210 · www.aiaraldea.org



GORBEIALDEKO ESKUALDEKO TURISMO BULEGOA



Bea-Murgia plaza, zk.g. 01330 Murgia
945 430 440 / 945 430 167
www.gorbeialdeakokuadrilla.eus



AÑANAKO ESKUALDEKO TURISMO BULEGOA



Miguel Diaz de Tuesta plaza, zk.g.
01426 Gesaltza Añana
945 351 386 · www.ananaturismo.com



BASTIDAKO TURISMO BULEGOA



Salazar jauregia. Bakearen plaza, zk.g.
01330 Bastida
945 331 015 · www.labastida-bastida.org



GUARDIAKO TURISMO BULEGOA



Garcetas etxea. Kale Nagusia, 52.
01300 Guardia
945 600 845 · www.laguardia-alava.com



KEXAako TURISMO BULEGOA



Arte Sakratuaren Museoa. 01477 Kexaa
945 339 414 · www.aiaraldea.org



ARABAKO LAUTADAKO TURISMO BULEGOA



Kale Nagusia, 8. 01200 Agurain
945 302 931 · www.cuadrillasalvatierra.org



ZIEKOKO TURISMO BULEGOA



"Casa de los Maestros" eraikina Norte kalea, 26
01340 Zieko
945 606 632 · www.elciego.es



ARABAKO MENDIALDEKO TURISMO BULEGOA ETA BIDE BERDEKO INTERPRETAZIO ZENTROA



Geltokiaren kalea. 01128 Antoñana
945 410 577 · www.montanaalavesa.com



GAUBEAKO TURISMO BULEGOA



Jesus Guinea arkitektoa, 46
01426 Uribarri Gaubea
945 353 040 · www.valdegovia.com



GASTEIZKO TURISMO BULEGOA



Espainia plaza, 1. 01005 Gasteiz
945 161 598 · www.vitoria-gasteiz.org





HITZA

Ahozko mintzamenaren irudikapen grafikoa.
Esanahia duen elementua; pertsonen arteko komunikazioa errazten du.



10

ZURE BIDAIARI BURUZKO ORITZAPENAK

GOGOAN HARTU

ERREPIKATZEKO ESPERIENTZIAK!

ERREPIKATZEKO ESPERIENTZIAK!

AGUR

Esapide anbibalentea, ongietorria emateko zein adio esateko balio duena.
Hitz horren bitartez, euskaldunok inguratzen gaituen unibertsoa besarkatzen dugu eta musu ematen diogu.



www.alavaturismo.eus



Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava

*Araba da eronka
El reto es Álava*

EUSKO JAURLARITZA

TURISMO, MERKATARITZA
ETA KONTSUMO SAILA



GOBIERNO VASCO

DEPARTAMENTO DE TURISMO,
COMERCIO Y CONSUMO

#arabairisgarriada